

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/19

Enkarterrietako Museoak Lope Garcia de Salazar bandokidearen hazur gorpuzkinak ezagutzeko aukerea eskini deutso gaur jenteari

Hogei persona baino gehiagok Lope Garcia de Salazar bandokidearen (Muskiz, 1399-Portugalete, 1476) hazur gorpuzkinak zuzenean ezagutzeko aukerea izan dabe gaur goizean. Erdi Aroko Bizkaiko leinu garrantzitsuenetako bateko kidea izan zan.

Gorpuzkinak 1948an atara ziran hobitik, garai haretan Aldundiko presidentea zan Javier Ybarrak eta Bizkaiko Kulturako Batzarraren Idazkari Nagusia zan Esteban Calle Iturrinok aginduta. Real Sociedad Bascongada de Amigos del País alkarteak antolatutako jaia prestatuko, San Martingo baseleizan indusketa egiteko eskaria egin eben. Aurkitutako gorpuzkinen artean ezkerreko izterrazur bat, parietalaren eta frontalaren zati bat (buruhazurra), matrailazur bat, orno bat eta oineko eta eskuko hazurrak egozan. Lehenengo behaketea egin ostean, Lope Garcia Salazarrenak eta 12 urteko alabarenak izan eitekezala ondorioztatu zan.

1999an hazurrak Muskizko San Joan eleizatik Enkarterrietako Museora eroan ziranean bandokideari eskinitako erakusketea egin zan. Orain urte bi, Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Enkarterrietako Museoak, Pedro Castaños paleontologoaren bitartez, lehenengo Karbono 14 analisia egin eben, baina emaitzea ez zan oso argigarria izan. Aurton bertan El Pobal Burdinolagaz eta Bizkaiko Foru Aldundiagaz batera egin diran beste azterketa batzuei esker, hazurrak 1445-1524 ingurukoak dirala ikusi ahal izan da, eta hori bat dator Lope Garcia de Salazarren heriotzeagaz.

Orain arte egindako azterlanek hazur gorpuzkinak Enkarterrietako persona horrenak diranik zalantza barik argitu ez daben arren, nahiko argi dago Salazar – Muñatones leinuko kideren batenak dirala.

LOPE GARCIA DE SALAZAR

1399an jaio zan Lope Garcia de Salazarren bizitza gerraz eta erbestez betetako espiral batean murgilduta egon zan hasieratik; bere maiorazgoa izan zan seme nagusiagaz, Juana de Butron eta Mujicagaz izandako ezkontzan jaiotako Joan “mauruagaz”, izandako gatazken eragile nagusia. 1457an, Enrique IV Erregearen aginduz, hiru urtez Bizkaitik kanporatua izan zan; horren ondorioz sortutako hainbat gertakari dirala eta, Lope gainbeheran sartu zan, eta semeak hartu eban haren lekua leinuaren buru moduan. Azkenean, 1476ko zemendiaren 9an hil zan Muñatoneseko San Martin torrean, alabeagaz batera, pozoituta.

Lope Garcia de Salazarrek idatzitakoak ei dira Bizkaiko historiaren arloan oso garrantzitsuak diran lan bi: *Crónica de Bizkaia* eta *Bienandanzas e Fortunas*.

NOTA DE PRENSA

19/05/18

El Museo de las Encartaciones ha ofrecido hoy al público la posibilidad de conocer los restos óseos del banderizo Lope García de Salazar

Más de una veintena de personas han tenido esta mañana la oportunidad de conocer de primera mano los restos óseos del banderizo Lope García de Salazar (Muskiz, 1399-Portugaleta, 1476), integrante de uno de los linajes más importante de Bizkaia durante la Edad Media.

La exhumación de los restos se realizó en 1948 por encargo del entonces presidente de la Diputación, Javier Ybarra, y del Secretario General de la Junta de Cultura de Bizkaia, Esteban Calle Iturrino, quienes con el objetivo de preparar una fiesta organizada por la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, solicitaron la excavación en la ermita de San Martín. Entre los restos hallados se encontraban un fémur izquierdo, un fragmento de parietal y frontal (cráneo) un maxilar (mandíbula), una vértebra y huesos del pie y de la mano. Tras una primera observación se llegó a la conclusión de que podrían pertenecer a Lope García Salazar y a su hija de 12 años.

No fue hasta 1999 cuando el conjunto de huesos fueron trasladados desde la iglesia de San Juan de Muskiz hasta el Museo de las Encartaciones donde se instauró una exposición dedicada al banderizo. Hace dos años las Juntas Generales de Bizkaia y el Museo de Las Encartaciones, a través del paleontólogo Pedro Castaños, realizaron el primer análisis de Carbono 14 ofreciendo un resultado poco concluyente. Este mismo año mediante otros análisis realizados a través de la colaboración con la Ferrería de El Pobal y la Diputación Foral de Bizkaia se ha logrado datar los huesos entre 1445-1524, coincidiendo con la muerte de Lope García de Salazar.

Si bien los estudios aún no confirman que los restos óseos puedan pertenecer al encartado, éstos pertenecen con bastante probabilidad al linaje Salazar – Muñatones.

LOPE GARCÍA DE SALAZAR

Nacido en 1399, la vida de Lope de García de Salazar estuvo desde su comienzo envuelta en una espiral de guerra y destierros; su mayorazgo se convertiría en el causante principal de los desencuentros con su hijo primogénito Juan “el Moro”, fruto de su matrimonio con Juana de Butrón y Mújica. En 1457 por orden del Rey Enrique IV fue desterrado de Bizkaia durante tres años; este hecho provocaría una serie sucesos que llevaría a Lope a la decadencia hasta el punto en el que su hijo Juan acabaría relegándole como cabeza de su linaje. Finalmente falleció el 9 de noviembre de 1476 en la Torre de San Martín de Muñatones junto a su hija a causa de envenenamiento.

A Lope García de Salazar se le atribuyen dos obras trascendentales en el ámbito de la historia en Bizkaia: *Crónica de Bizkaia* y *Bienandanzas e Fortunas*.